

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZAKO SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 76/2023 Erabakia, otsailaren 21ekoa. Onespena ematea mahasti zaharrak kontserbatu eta mantentzeko laguntzen 2023ko deialdiari

Mahasti zaharrak kontserbatu eta mantentzeko laguntzen oinarri arautzaileak, zeinak ekainaren 26ko Foru Gobernu Kontseiluaren 30/2018 Foru Dekretuaren bidez onetsi baitziren (Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 9ko 19/2020 Foru Dekretuaren eta Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 13ko 14/2021 foru dekretuen bidez aldatua).

Kontuan hartuta Arabako Foru Aldundiaren 2023ko ekitaldirako gastuen aurrekontuan badoela partida bat laguntza lerro honetarako, onspena ematen zaio 2023ko deialdiari, eta hari aurre egiteko behar besteko kreditua gordetzen da.

Horren ondorioz, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatu eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onspena ematea mahasti zaharrak kontserbatu eta mantentzeko laguntzen 2023rako deialdiari. Hona hemen xehetasunak:

– Eskakerak aurkezteko epea eta lekua: 2023ko apirilaren 3tik maiatzaren 31ra arte, biak barne.

Eskakerak hemen aurkeztu behar dira:

- Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.
- Vitoria-Gasteizko, Guardiako eta Laudioko Ogasun bulegoen erregistroa.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan jasotako erregistroetakoren bat.

Hala eta guztiz ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua diotenari jarraiki, nahitaez aurkeztu beharko dute era telematikoan, egoitza elektronikoen bidez (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/ayuda-para-mantenimiento-y-conservacion-de-vinedos-viejos>), pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko erakundeek, nahitaez bete beharreko jarduera profesional batean dihardutenek eta jarduera horren egikaritzan egiten dituzten izapideetan, eta administrazioarekiko harreman elektronikoa izatera behartuta dagoen interesdunik ordezkatzeko dutenek.

– Kreditu erreserba: 272.762,55 euro Arabako Foru Aldundiaren 2023rako gastu aurrekontuaren "Mahasti zaharrak mantentzeko plana" izeneko 40104. G/419401/77000402 partidaren kontura. Dagokionean xedatu eta ordainduko zaie diru kopuru hori deialdiaren oinarri arautzaileek eskatutako betekizunak betetzen dituzten laguntza eskatzaileei.

Kreditu hori zenbateko gehigarriekin handitu ahalko da urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutako mugen barruan, hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko 100eraino, baita aurrekontu partidaren edozein zioreratik gerta daitezkeen kreditu gehikuntzarengatik ere.

– Laguntzaren gehieneko zenbatekoa, nekazaritza ustiategi bakoitzeko: 2023ko deialdi honetan 4.000,00 euro ezartzen dira gehienez, nekazaritza ustiategi bakoitzeko.

Bigarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea laguntza lerro honetarako deialdi hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta, haren aurka, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke organo horri, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritik Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 21a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE